

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia Iragarkiak

IDAZKARITZA NAGUSIA

Foru Gobernu Kontseiluak 2025eko urtarrilaren 14ko ohiko bilkuran onartutako ebazpen laburpena

– **Foru Dekretuak:**

LURRALDE OREKAREN ETA LURRALDE ANTOLAMENDUAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 1/2025 Foru Dekretua, urtarrilaren 14koa. Onespena ematea landako askotariko zerbitzuak ezarri, handitu eta hobetzea sustatzeko dirulaguntzen oinarri arautzaile orokorrei.

KULTURA ETA KIROL SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 2/2025 Foru Dekretua, urtarrilaren 14koa. Onestea alda dadila 67/2010 Foru Dekretua, arautzen duena Gazteriaren Foru Erakundearen aterpetxeetan eskaintzen diren zerbitzu eta jarduerengatik ordaindu behar diren prezio publikoen araudia.

– **Erabakiak:**

DIPUTATU NAGUSIAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 7/2025 Erabakia, urtarrilaren 14koa. Onestea bateragarritasun adierazpena, Berdintasun, Euskara eta Gobernantza Saileko diputatuaren, Lurralde Orekaren eta Lurralde Antolamenduaren Saileko diputatuaren eta Lurralde Orekaren eta Gizarte Zerbitzuen zuzendarien artekoa.

OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 8/2025 Erabakia, urtarrilaren 14koa. Onestea gastua xedatzeko fasean jartzea Arabako Batzar Nagusien 2025eko funtzionamendurako partida.

BERDINTASUN, EUSKARA ETA GOBERNANTZA SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 9/2025 Erabakia, urtarrilaren 14koa. Onespena ematea Kontseiluaren urtarrilaren 7ko 3/2025 Erabakian egindako hutsa zuzentzeari.

EKONOMIA GARAPENAREN ETA JASANGARRITASUNAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 10/2025 Erabakia, urtarrilaren 14koa. Onespena ematea Kontseiluaren abenduaren 23ko 801/2024 Erabakiaren bidez onetsitako araztegiak kontrolatzeko postu zentral bat ezartzeko kontratazio espedientearen ezaugarrien koadroko akatsak zuzentzeari.

GIZARTE POLITIKEN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 11/2025 Erabakia, urtarrilaren 14koa. Esleitu gabe uztea Amurrioko San Anton de Armuru egoitza handitzeko eta birgaitzeko obraren kontratazioa, Kontseiluaren azaroaren 19ko 672/2024 Erabakiaren bidez onetsia.

KULTURA ETA KIROL SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 12/2025 Erabakia, urtarrilaren 14koa. Onespena ematea Arabako Foru Aldundiak antolatutako ekitaldietarako eszenatokiak, karpak eta beste elementu batzuk alokatu, garraiatu, muntatu eta desmuntatzeko zerbitzua prozedura ireki bidez kontratatzeko espedienteari. Zenbatekoa 127.000,00 euro, BEZa barne. Gauzatzeko epea: urtebete.

Foru Gobernu Kontseiluaren 13/2025 Erabakia, urtarrilaren 14koa. Onestea epez kanpo aurkeztutako San Prudentzio txapelketen egiaztagiria.